

DK ON! UDAKO IPUINAREN ORDUA

Donostia Kulturak uda honetan haurrei eta familiei zuzendutako jarduera berri bat sortu du. **Irakurzaletasuna bultzatzeko** xedearekin, **uztailaren 1etik aurrera, astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etan** Ipuinaren Ordua **euskaraz modu birtualean** eskainiko da. **Lur Kortak** gidatzen duen taldeak egitarau erakargarri bat prestatu du eta Donostiako ondare historiko artistikoa ezagutarazi nahian grabazioak hainbat toki esanguratsutan egin dira. Saioak Donostia Kulturako **Youtube kanaletik** emitituko dira eta ipuinekin batera jolasak eta sariak antolatuko dira parte hartzaileentzat. **Ostiraletako** kontaktak **zeinu hizkuntzan** izango dira.

Ipuinaren Ordua uztailean eta abuztuan

Irakurketaren sustapenak udan jarraipena izan dezan, uztailean eta abuztuan haurrek egunero ipuin berri bat entzunez gozatzeko aukera izango dute. Eskarmentu handiko narratzaile taldea osatu da Lur Kortaren gidaritzapean: **Saioa Aizpurua, Amaia Puin, Iraitz Lizarraga, Izaskun Mujika eta Lur Usabiaga**. Halaber, programak beste ezaugarri nagusi batzuk ditu. Batetik, grabazioak egiteko Donostia hiriko ondare historiko artistikoa ezaugarri duten **44 toki esanguratsu** aukeratu dira, ezagunak edo ez hain ezagunak direnak. Besteak beste, Victoria Eugenia antzokia, San Telmo museoa, Chillida Leku, Aquariuma, Santa Klara uhartea, Cristina Enea parkea, Igeldoko funikularra, Tabakalera eta Alzako Harria parkea. Ipuin entzuleek Donostia hobeto ezagutu eta estimatzeko lekuak aukeratu dira.

Saioak Donostia Kulturako **Youtube kanaletik** emitituko dira eta **irailaren 10era** arte egongo dira ikusgai.

Bestetik, ipuinekin batera, **joko** entretenigarriak proposatuko zaizkie haurrei, eta, toki batzuetan, programaren maskota izango den **Eguzkitxo panpina** aurkitu beharko da. Jokoen erantzunak email ez bidaliko dira donostiakoipuinarenordua@gmail.com posta helbidera.

Zozketak ere egingo dira eta astero opari berezi bat jasotzeko aukera egongo da, besteak beste, haurrentzako liburuak, San Telmo Museorako gonbidapenak edo Txutxu trenerako txartelak. Gainera, bisitatuko diren tokien arabera, bertara joateko gonbidapenak egongo dira. Beraz, toki hauetarako sarrerak ere oparituko dira: Eureka! Zientzia museoa, Aquariuma, Euskal Itsas museoa, Chillida Leku, Igeldoko Funikularra eta Jolas Parkerako famili bonoa edo Santa Klara uharterako txalupa.

Aurrekariak

Ekimen honen aurrekaria **DK Etxean programako Ipuinaren Ordua** izan da. Konfinamendu garaian, martxoaren 30etik maiatzaren 31ra, haurrei zuzendutako ipuin saioak grabatu ziren kontalarien etxeetatik eta online zabaldu. Egitarauak arrakasta handia izan zuen haurren etxeetan. Haurrak adi adi egoten ziren saioa noiz hasiko zen

eta behin saioa bukatu ondoren ere ipuinen ikustaldiak errepikatzen ziren. Programak osotara 63 saio izan zituen eta 125.547 ikustaldi zenbatu ziren Donostia Kulturako kanaletan (Instagram, Facebook eta Youtube), beraz, ipuin saio bakoitzak 1.993 ikustaldi izan zituen edo ia 2.000 aldiz klikatua izan zela esan daiteke.